

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure jomuga izango diren bezeroen definizioa da.

Bereziki, Beti-Xiku enpresa eredia merkatu masibo batean oinarritzen da. Balorezko proposamenak, banaketa kanalak, eta bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituen.

Beti-Xiku enpresaren xede-publikoa gune euritsu batean egon daitekeen edozein pertsona da.

Honako hauek izan daitezke gure bezeroen ezaugarriak:

- Gune euritsu batean bizi da.
Gure produktuaren funtzioa aterkiak aterkiontzi berean sikatzea da. Horretarako, zalantzarik gabe, aterkia bustitzeko eta ondorioz sikatzeko beharra izan beharko du gure bezeroak.
- Txukuna da eta gauza bakoitza dagokion tokian egotea du gustuko.
Sarritan, gure aterkiak sikatzeko modu eraginkor eta eroso baten faltagatik, komunean edota terrazan uztera jotzen dugu. Nahiz eta agian gure helburu nagusia betetzeko aukera izan, askotan deserosoa izan daiteke gure aterkia etxetik zehar oztopatzen ibiltzea. Horretarako, Beti-Xikuk aterkiontzi berean sikatzeko aukera ematen du, gauza bakoitza dagokion tokian eta gainera era ordenatu batean utziz.
- Bizitza errazten dituzten teknologia berrien aldekoa da.
Nahiz eta batzuek aterkiak era tradizionalan edota betiko trikimailuekin sikatzeko izan nahi, gure enpresa aurrerapen teknologikoen aldekoa da, eta berrikuntza du helburu gisa. Horregatik proposatzen dugu era eroso batean gure aterki bustiak hurrengo erabilerarako siku izateko produktu egokiena.